

guztietan icusicoda, ce gauza chaarra,
ta Jaungoicuaren gorrotocua dan,
alaco demporaan olgueetia.

Beste ain beste esaten da, nai Elei-
siaren Burubac cristinaubai, nai Juc-
zac bere aguindupecuai, nai ugazabaac
otseguinai, nai gurasuac umiai era-
gotzita dauqueen demporaan, olgue-
etia gaiti. Bada oneec guztioe dau-
quee escubidia, bacochoac bere lecu-
ban, aguinduteco; ta aguinduban
dagozanac, obeidu biar deutsee erra-
zuazco ordeneetan, Ninivetarrac eguin
even leguez. Evangelijo Santubac
aguinduten deutcuna, arina, vigu-
na, erraza, ta alegueria da, Jaun-
goicua ameeetan davenarentzat. Gorde
bedi legue Santuba, serbidu bedi
Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza
guztiac biurtuco dira gueure oneraco,

gueure consueloraco, ta alegrija egui-
jazcoraco,

III. CAPITULUBA,

AMAIJA.

Placeetan gizon, ta emacume naar-
te eguiten dirian dantzaac, avemari-
jetan tambolina isilduta, amaituten
dirianac, Euscal errijetan usetan dirian
moduban, pecatu mortaleco ocase
urrecuac dira.

§. I. Plazaco piestaraco gentia ce-
lan presteetan dan.

§. II. Plazaco piestia celan eguiten dan.

§. III. Escritura Sagradubac, ta
Eleisiaren Gurasuac naasteco dant-
zaac gaiti dinuena.

gueure consueloraco, ta alegrija egui-
jazcoraco,

III. CAPITULUBA,

AMAIJA.

Placeetan gizon, ta emacume naar-
te eguiten dirian dantzac, avemari-
jetan tambolina isilduta, amaituten
dirianac, Euscal errijetan usetan dirian
moduban, pecatu mortaleco ocase
urrecuac dira.

§. I. Plazaco piestaraco gentia ce-
lan presteetan dan.

§. II. Plazaco piestia celan eguiten dan.

§. III. Escritura Sagradubac, ta
Eleisiaren Gurasuac naasteco dant-
zaac gaiti dinuena.

44

§. IV. Teologija Sagradubaren Eracuslaac, ta Errazoiac eurac gaiti di-nuena.

§. I.

*Plaza-pietaraco gentia celan prae-
teetan dan.*

Ezda asco aobetian esatia: *plazaco
naasteco dantzac avemarijetan gucratu-
ten dirianac, tambolina isilduia, uree-
tan dirian moduban, edo eguiten dirian
moduban, pecatu mortaleco ocasinoe ur-
recuac diriala, errazoiagaz proveetan
ezbada. Onetaraco popuerzacua da exa-
minetia: celan useetan dirian, edo
eguiten dirian, ta, Espiritu Santu-
bac, Eleisiaren gurasuac, Eracuslaac,*

ta errazoiac eurac gaiti cer dinuen;
 ta despeidaan dantzarijen errazoiac ce
 entzute merceduten daveen. Au egui-
 nagaz urtengo dau berecantan leguez
 goijan iminidan amaijac, edo *con-
 elurnoiac*, nire erichijan. Errazoe argui-
 jagua, ta jaquituriya altubagua dau-
 queenac ezautuco davee, ondo ataria
 dan, edo ez. Amaijari duda guztia,
 edo, aituten oiditubeen, achauqui-
 jaac quenduteco, esatenda: *Plazaan
 arguitan tambolinagaz eguiten dirian
 naasteco dantzaac, Avemarijetan tam-
 bolina isilduta, gueratuten dirianac,
 Vizcainan, ta Euscal errijetan useetan,
 ta eguiten dirian moduban, diriala eu-
 renez pecatu mortaleco ocasinoe urre-
 cuac. Bardin esaten da beste modu-
 baten: Dantzan eguitia berez pecatu
 izan ez arren, Euscal errijetaco pier-*

teetan eguiten dan moduban , pecata dala. Nai beste modu baten : Jazo oizanez , pecatu mortalaren beian dauqueela Cristinaubac obligacinoa , eran dirian dantzeetati apartetaco. Edo beste baten : aldaijan guztian , esan dan piesta dantzara juateco, vorondate presta , ta gogua ezauberaz daucanac , ta juan ezin dalaco peniagaz gueratuten danac , ocaseoe atan sartutia consentiduten davenian, eguiten davela pecatu. Despeida , edo conclusioe oneec guztioe batera joten davee, edoceinec dacusen leguez. Gogoratu daigun bada, celan gentia presteetan dan Euscalerrijetan piestaraco , ta guero celan eguiten dirian.

Onetaraco zurtu belaarrijac , arguitu beguijac, ta ezautu ceuben peccaturic gueijenen erne lecuba. Pla-

zaco dantzara duazanac, luxurijaren
suba garretan euquiteco gueiric pres-
teenac batuten ditubee eurreetara. *Eda-
dia*, *Edana*, *Jantzija*, *Nasaitaruna*, ta
Estaduba.

I. *Edadia*. Plazaan tanbolinagaz
dantzan eguiten daveenac, bai Gui-
zonac, ta bai emacumiac, amazortzi
urteti berrogueta amarrecuac dira.
Egon leitequez gaztiaguac, ta zaar-
raguac bere; baina guichi. Plazaco
piestia darabillecnac, dira, esan dan
edadecuac. Mundu guztiac daqui,
edade atan ce cereguin, ta lan an-
dija dan, ixioquiya subari urreratu
bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac
goitutia. ¿Ete dira dantzaari oneec
Sanson baino senduago? ¿David baino
Santubago? Salomon baino jaquitu-

nago? Arece ocasinoe chiquijagua
jausi cirian.

II. *Edana*. Piestara duazanac, pies-
tia erdiz erdi daneco, trago bat edan-
da dagoz, bai guizonezcuac, ta bai
emacumiac. Ez dinot, ordituta dago-
zala; ez bada ardaua edateco eria
guztiac, edo gueijeenac euqui daveela.
Gueijenac, edo guztia guichi, edo
asco edan daveela. Ta areetati ascoc
biar leuqueen baino, gueijago bere
bai. Eurac esan oidaveen leguez:
ija pusca bat ardauac alegueretua.
Mundu guztia daqui bada; ardao
pusca bat edanac, ta endemas cerbait
gueijago edanac, errazoia illundu,
gogua alegueretu, odola berotu, ta
luxurijaren suba viztu eraguiten da-
vena. Ta endamas guichitan edaaten
davenari.

II. *Edana.* Piestara , duazanac,
piestia erdiz erdi daneco, trago bat
edanda dagoz , bai guizonezcuaac, ta
bai emacumiac. Ez dinot , ordituta
dagozala; ez bada ardaua edateco eria
guztiac , edo gueijeenac enqui davee-
la. Gueijeenac, edo guztiac guichi, edo
asco edan daveela. Ta areetati ascoc
biar leuqueen baino, gueijago bere bai.
Eurac esan oidaveen leguez, *ija pus-
cabat ardauaac alegueretuta.* Mundu
guztiac daqui bada, ardao pusca bat,
edanac, ta endamas cerbait gueijago
edanac , errazoia illundu , gogua ale-
gueretu , odola berotu , ta luxuri-
jaren suba viztu eraguiten davena.
Ta endamas guichitan edaaten dave-
nari.

III. *Jantzija.* Plazaco piestara
eruaten dan jantzija , da ain bat eder-

50

reena, ta edertuen iminiya. Ainbat onduen buruti, biatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta; aldaquijanac larrosia, cabelinia, ispliguba, edo beste bedar usain gozoco bat buruban, paparrian, edo escuban davcela, juaten dira plaza piestara, bai guizonac, ta bai mutillac, bai andraac, ta bai nescaac.

Dinot, *nescaac*, ezcondubagaco emacumiac gaiti, nescatillaac ez esatiarren. Bada nescatilliaren izenac, guztiaac ondo daquijeen leguez, bera-gaz dauca errespetua, modestija, onestidadia, ta lotsoorra izatia. Ta modu atan piestatic piestara, ta dantzatic dantza guizon escu artian liquinduta, dabilzan emacume ezcondu bagacuac, ez dauqueen leguez, ez lotsaric, ez modestijaric, ez onestidaderic, ezin

emon Icguijue eguijazco errazoian
Nescatilliaren izen ondrauba, ezbada
 nesquiaren izena. Ez jaco beliari usua
 esaten, ezbada belia.

Dinot bada, piestara duazan
 guztiaç, diriala ainbat onduen apain-
 dubac; guztiaç bacochari, ta baco-
 chac guztiai ondo beguiratu dagui-
 juen, erechi daquijuen, ta amau da-
 guijezan. Au autor ezdaven dantzaa-
 riric ezdago piestaa, eguija esan gura
 davenian. ¿Ta ezda gauza jaquina,
 plazaco apaindurijac, ta gorputza
 ondo prestaubac luxurijari sarri dei
 eguiten deutsana, ta su gueijago emo-
 ten deutsana?

Ezda orain ezer esaten araco, edo
 bularrac berarjaz jasota, edo armatu-
 ta, edo paparra aguirijan, edo be-
 suac bilosic, edo bilosic, baino ez-

52

asco obeto, darioiezan nesca, edo andraac gaiti. Dirianac diriala, coru loijagocuac dira oneec.

IV. *Nasai-taruna.* Dantziari, ta piestiari jarraituten deutseenac, beste mandamentubac bere ardura guichigaz austen ditubeenac. Conciencia nasaicuac. Beguiratu errazoe onetan. Orraco plazaco piestetara utseguiten ezdaveenac, dinot, diriala pecatubaren bildur guichi dauqueenac. Bidao bat, edo juramentu bat alperfic eguitia; meza bat ondo entzuten ez jaquitia; erdi entzunian, edo ondo entzun bagaric gueratutia; Jaijegun Santubetan jocuan, tavernaan, dantzan, edo errietaan egunic gueijena, ta gau zati bat iragotia; umiai aziera galduba emotia; gurasuac gaiti gura daveena umiac eguitia; justici-

jari, ta Cura jaunai lotsaric ez artu-
 tia; inori ezer ezparcatutia; edo-
 cein gaiti deungaro esatia; urtian
 bein, edo birritan, ta orduban celan
 bait, baño ez compeseetia; satrijago
 compeseetan dirianai, Eleisaco cer
 eguin Santubetara juaten dirianai, ta,
 curac leguez, nasai ez dirianai, bar-
 re, ta burla eguitia; Jaungoicuaren
 verbia, edo sermoeetan esaten dana,
 chanzatzat, ta barregueitizat artutia;
 verbeetan, ta eguitadeetan, elduten
 dirian lecu guztian, verdetasuna; ta
 indecencia eracustia.... Nasaitasun au
 guztiau, dinot, edo, obeto esateco,
 pecatutequi au guztiau ez escrupu-
 lutzat, ez compesaquizuntzat bere ar-
 tuten ez ditubeenac, dira, plazaan
 piestia eguiten daveenac.

V. *Estaduba.* Juaten dirianetati,

§4

gueijeenac dira libriac. Ezin ucatu legui, arriscu gueijago dauqueena edade ataco persona libriac, bai guizonezcuac, ta bai emacumiac, arimaco, ta gorputzeco onestidadia galduteco. Eguija da, guizon ezcondu batzuc bere bagoz, zaartuta, buruba urdinduta euqui arren, gaztiac baisen berdiac. Areec bere inundi albada-guijee, piestaan izango dira. Ta parian iragoten dan nesca bati, gueijago ezin badavee, maquiliaren puntiaz bada bere, zabalduco deutsee luxurijaren atsa, sarritan icusten dan leguez. Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardaua edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac, ta zaartzan, besteric ezinda, ezcontza quintziari emoten deutseenac. Areec bere, oina

jaso albadaguijee, an izango dira piesta-
taan vegui zolijaquin. Verbeeta onetan
ecer gueituta ezdaguana, piesta zale
guztiac daquijee. Ta eguija esateco lecu-
ban, au, ta gueijago eufac autor davee.

Emeti ateraten da contuba, ume
condo batzuc apartau ezquero, beste
plazara piestia eguitera batuten dan-
gentia, dala, luxuriazco gauza loijai
inos gogna illundu ezdeutseenac. Cas-
tidadia galduteco tentacinoe bat Jaun-
goicua gaiti bacarric goitutia, cerdan,
ondo ezdaquijeenac. Desonestidadeco
escolaan atzijac, ta ibilijac; edo ata-
raco presteetan dirianac, bai ezcon-
dubac, ta bai alargunac, bai muti-
llac, ta bai nescaac, ta bai beste
estaducoric badago bere.

Eguijazco examina onetati ezautu-
tenda arguiro: Piestara duazanac, di-

56

riala, luxurijaren suric gueiljeen dau-
queenac edadiaren parteti: Luxurijaz-
co gaucetara gogua gueiljeen con-
videetan daveenac apaindurijaren par-
reti: Castidadia galdubac penaric gui-
chien emoten deutseenac, concien-
cija nasaijaren parteti: Ta condecio-
noe verdecuac estadubaren parteti.

Begoz bada orain puscabaten pla-
zaan tambolinagaz, esandan modu-
co eun, berreun, laudeun, edo
guelijago guizon, ta emacume, sar-
tueraan trago bat artuten, edo al-
carri carinozco ezauberia emoten, bes-
te plazaco dantziari, ta piestiari be-
rez leguez, darraicozan gauza batzuc
gogoratuten ditugun artian.

Piesta zaleenizat ezdago pista egu-
na, baino priesacuagoric. Orduban
dira, goix parteti eche viarrac gaz-

tiac eguitia. Egun ataco , ta ascotan
 vijamoneco ganadu jaatecua echera
 batutia. Painueluac javoneetia, almi-
 dootutia ; oineraco , ta gorputceraco
 jantijari puntubac artutia, caeleetia.....
 Guztia da priesia piesta eguna , ar-
 rasteguijan piestara juatia gaiti. Ta guei-
 jenian (ta endamas baseerijetan) a-
 guinduten deutsee gurasuac, eta uga-
 zabac gaztiaí piestara, jai osua izan
 arren , onaco , ta alaco cer eguinac
 eguinda , andi aurrera , gura bada-
 vee. Piesta zaliac egun atan, meza-
 tan Eleisaan egon arren , mezaric
 entzun ezdaveela, sinistu guinai, juz-
 gu gaistoric eguin bagaric , gogua-
 beste ardureetan euqui daveelaco. Itan-
 du bequijue ondo , ta eurac esango
 davee.

Asco juaten dira piestara , gurasuac

nai ez daveela. Beste asco, Aita, edo
 Ama eurai bidaoca dagozala. Beste
 asco, ehecuac (endamas Aitac) ezda-
 quijeela, ixilic eguindaco jantijagaz.
 Nundi, eta celan oidirian piestaraco
 jantzijac, eta galaac emacume asco-
 ren soinian, sobre daqui mundubac.
 Bada gauza jaquina da, guraso, ta
 ume ascoren arteco baque chaarrac,
 asarriac, bidauac, ta, eurac esan oi-
 daveen legueez, impernucuen vitzitzia
 echian diriala piesta madaricatubac
 gaiti. Gurasuac umiai naidaveen pies-
 teetan, ta naidaveen lagunaquin, gau,
 ta egun ibiltan isteen ezdeutseelaco.
 Ta gura leuqueen soina, eguiten ez-
 deutseelaco. Ezdira gauza onec aaztu-
 biar, piestaco dantceen gainian ver-
 be eguiteco.

Beste asco juatendira gurasuen vo-

rondatiagaz, ta echian eguindaco jant-
 zijagaz, Baina alaco gurasuac, eurac
 bere piestatic piestara ibili zirianac,
 edo oraindino dabilztanac. Desonesti-
 dadeco escolaan atzijac, ondo eldu
 bagacuac, zaartuta bere berdiac. Ta
 gurasuac celacuac, umiac alacuac. Aita
 verdiaren semia verdia. Ama loijaren
 alavia loija. Alaco guraso galdubac,
 aguincetati ura darjola, itanduco
 deutsa arratsian alaviari ¿ya dant-
 zara ceinec eruan daven? Loba barri-
 ric echera ezbadacarree, beste de-
 sonestidade guztia umiac erabili ar-
 ren adisquide chaarrequin, ez jaco
 alaco gurasuari coloreric mudauco.
 Umiac pecatu mortalian egon arren,
 ez deutsee ardura, plaziagazcua, ta
 mundubagazcua eguin ezquero. Dino-
 dan guztia, eguija dana, ezautu-

60

teco , inoc dudarie badauca , contu
 imini begui , ta icusico dau : Seme
 alabai , ta oseguinai piestetara , ta
 naasteco dantzeetara juateco liberta-
 dia ardura bagaric emoten deutseen
 gurasuac , ta ugazabaac , edocein la-
 gun artetan esaten ditubeela verba
 desonestubac , ta lotsarizeco errazoiac ;
 ta eguiten ditubeela , arei darraicue-
 zan azalquerija verdiac. Ezda beste
 testigantzaric biar , areec cer izan
 dirian , ezaututeco.

Aparteco arduria euqui dot beti,
 piesta , ta dantza zaliari dotrinia itan-
 duteco. Ta ez davee sinistuco , pro-
 vau ez daveenac , ce palta andija
 dauqueen. Ezdaqnijee gueijeenac , sal-
 vetaco biar daveena. (Dei eguiten jaco
 emen Cura Jauneen , ta Conpesore
 Jaunen Zelo Santubari). Au gaiti

bigarren, irugarren, laugarren, bostgarren, seigarren, ta zorzigarren Jaungoicuaren Aguindubetan pecatu mortaltzat, edo illgarritzat Eleisaco jaquitunac eracusten ditubeen, ta eurai jagocuezan gauza asco, chochaquerijac, ta simplezaac diriala, uste davee piesta zale ascoc. Ezdauqueez compesaquizuntzat bere. ¡Oh, ez jaquinaren sail madaricatu-bac! Plazaco piestiari Erri-oneetan berez leguez darraicozan gauza oneen ondoric, icusi daigun, celan eguiten dan plazaan piestia.

§. 11.

Plazaco piestia celan eguiten dan.

Avemarijeetan tambilina ixilduta, gueratuteco piestia da, emen exa-

mineetan daria. ¡Oh! Au fiesta santuba da: esango davee dantza zalliac. Ta pensau legui cerbait, gheijago ez daquijanac. Baina Vizcaico, ta Provinciaco piesteetan aut, ta utsa bat dira. Bideetaco echiac, celaijac, ta sasi onduac ateraten davee placiarren paltia. Ta nesca baten trompiac, edo soinubac tambolinarena. Ezpabere, esan daguijeela: ¿Tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat juaten dirian echera, gavac demporaac emon bagaric? Gueijeenaz bere, inoc casuric eguin ez deutsan nesca epel bat, edo mutil macal bat. Beste guichi: ¿Ta nos palta dira fiesta egunian plazaan, gavac ordubac emonda bere, gizonac, eta emacumiac? ¿Nun dauqueez echiac, ta nora-guino juan biar davee, avemarijetan

tambolina ixildu arren? ¡Ah! Au edo-
ceinec daqui. Estalgui chaarra da,
piestia ontzat emoteco, avemarije-
etan tambolina ixilduten dala, esatia,
Vizcajian, ta Provincian. Justicijac bere
au erremedijatu ezin legui. Echeetan
bai asarre andijac, ta pecatu mor-
talera elduten dirian ocasinotac, ta
escandalubac, ascotan, auzuac igar-
ten deutseen tercijuan, gurasuen, ta
umeen artian, piestati berandu eche-
ra juan dirialaco.

Gomuta onegaz guazan plazaco pies-
tiari beguiratutera. Ez gente pilluari
mordo baten. Ezbada gauza oneraco,
edo chaarreraco jazoten dan moduban.
Teologija Sagradubac guizonaren vo-
rondatezco eguitade bacochari begui-
ratuten deutsan moduban. Beguiratu
daijegun bacochari banaan, edo bi-

naan, edo irunaan, dagozan moduban, ta daviltzan moduban. ¿Ya cer eguiten daveeen? ¿ya cer esaten daveen? ¿ta cer icutsico dogu plazaco gente pilluaten artian? Dinot arima arimati; lotsa n^{al} escribiduten. Baina aguirico pecatobac dira, ta esan biar dira. An icusten da, edade arriscucucac, ardauac, apaindurijac, concienciya nasijac, ta oitura desonestubac daucan luxuriya osua. Icusten da: dantzia ez davilen demporaan, nesca bat, bi, edo iru mutil bategaz, bigaz, edo irugaz alcarri escubac solbardaan, edo.... iminita, verbeetan, ta maitequerijeetan dagozala. ¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deutsanac, alboti bere entzun biar ezditubanac. ¿Ta ce maitequeriya? Escubaquin, veguijaquin, ta

arpeguico geriagaz guztia luxurijaren
 suba darijona. Icusten da : dantzia
 asi dedinian, nescaac armatuta da-
 gozala, avijan goseric daguan chori-
 amaren jararijaren zain leguez, nos
 noc dantzara ^{1. EIEZE} eruango ete dituban,
 goguan ^{1. E} daukeen leunquerija, ondo
 eracusten daveela. Erri batzubetan
 nescaac asten davee, ta cumpliduten
 davee mutilez, edo guizonez dantzia.
 Itchusijago, ta lotsa galducuago bai-
 no ezda. Icusten da : dantzaraco es-
 que juacozan andriari, edo nesquiari,
 eguiten deutzazala milla acinoe, ta me-
 nio indecente, daroianac, bai escuti
 oratuten deutsanian, ta bai dantza-
 rijari entregueetan deutsanian, nes-
 quiaren, edo andriaren aurrian salto-
 ca, chico ezi bagaco, edo baso asto
 batzuc dirurijeela. Ta ceimbat inde-

66

cencia gaeijago eguiten deutseen, ain bat dago nesquia pozagoric labanquerijaren, ta liquibquerijaren vitsa darijola.

Modu onetan plazaan dantzia cumplidutenda. Dantzia cumpliduta laster, tambolinac esatendau: *Nai davenac nai davena eguin daguejala*, naastia, arin aringua, arrebatua, ta pandangua joten ditubanian. Ya dagoz dantza atan guizonezcoric, edu emacume, edo mutilic, edu nesca. Guztia, esan dan leguez, onestidadia galduteco ondo pretauta, escuz escu alcarri oratuta, naaste mutil biren erdijan nesca bat dala, noren seme, edo alaba dirian, asco gomuta ezdaveela.

Tambolinac dino: gura davenac, gura davena eguiteco, orduba dala.

Ta egijja esateco, eguzquijari beguira
 bertan pecatu eguingo ezbadavee, bes-
 te desonestidade guztia lotsa bagaric
 airian darabilee daniza atan. Naaste
 atan entzuten dan, ta icusten dan
 guztia, da luxurijaren suba, ta queia.
 Batian dantza lucian arin aringa gor-
 putzaquin alcar joten. Bestian pan-
 danguan nos arpeguiaquin, nos be-
 suaquin, nos sabeleequin, nos albua-
 quin alcar ez joco, bai joco nesca,
 ta mutil; menio desonestubac, ta
 lotsarizcuac gueratu bagaric eguiten
 deutseezala alcarri. Ta bestian cazu-
 belaan, erlia leguez, mordo baten
 guizon, ta andra naaste. Ni esaten
 azartuten ez nasan ezaintasunac, al-
 carri eguiten deutseezala. Nescaac eu-
 rac bere, alacuac izan arren, ascotan
 coloriac gorrituta urteten daveela, an-

discotiac dirialaco mordo ataco peca-
tubac gente arteraco. Dantza atan
esaten dirian, ta entzuten dirian ver-
ba banacaac desonestubac. Beguirac-
cuniac, eta alcarren geraac desones-
tubac. Mosu eguiteco, ta oratuteco
meniuac, ta oratutiac desonestubac.
Gorputzaquin alcar jotiac desonestu-
bac. Oinaquin magal jotiac desones-
tubac. Escu estututiac desonestubac....
Ta au guztiau dantza bacochoian gue-
ratu bagaric nescaac mutilai, ta mu-
tilac nescai.

Ceimbat gavaren urrago, aimbat
ezainago, nasaijago, ta zafarrago
dantza bacochoa. Dantzati urteten da-
vee sarritan nescaac, eureen iruneco
zapijac ascatuta, ta burucuac oquer-
tuta, icusi bagaric sinistu ezin le-
guijan moduban. Ascotan dantza ari-

nian, oin bijac laban eguinda, plaza-
 ziaren erdijan jausita, gueratuten dira
 andrazcuac, inoc beguiratu biar ez-
 deutseen moduban, escuti dautsanac,
 colpez jaso artian; ta gente guztia
 arixe beguira chaloca. Dantzään sar-
 tuten ezdirianac, edo dira, lutubac
 dauqueezanac; ta areec bere gogoz
 an dagoz. Edo dira, zaar ibilli ezin
 dirianac. Oneen condecinoia esanda
 gueratuda. Aguraac badira, ordituta
 asco. Atsuac badira, ta endamas seme
 alabaac an dauqueezanac, azerija ollua
 jaaten baino, pozagoric dagoz plaza
 baztar bateti, edo bentana zulo bateti
 dantziari beguira arrastegui guztian
 cansau bagaric. Edo dira, seina egui-
 teco andi dagozanac. Oneec bere vo-
 rondatez dantzään dagoz. Baita ba-
 zuc gorputzez bere ocotzeraguinoco

sabelagaz Justicijaren lotsa arin onian,
ta naturaleciaren desondraan, Edo dira,
dantzara inoc eruan ezditubanac. O-
neec embidijaz, ta zeloz murmure-
tan, ta ernegueetan dagoz, inoc aint-
zat artu ezditubalaco. Ezdavee bein
bacarric topau nescaac dirubagaz,
dantzara noc eruan. Edo dira, adis-
quide maiteATEGAZ bacarrian asti-
rochubago egon gura Javeenac, bes-
tiac dantzan daviltzan artian. Oneec
bere ija ezautubac, dira, cer dirian,
Beste guztia dantzan daviltz.

Dantziaren despeidaan, edo amai-
jan ascotan, edo gueijeenian, mutila
dua, dantzan erabili daven nesquia-
gaz, ta dagoz alcarregaz beste dant-
zara artian, endamas bere devo-
cinoecua bada, prutia, edo erros-
caac artuta. Areec dantzaan berotu-

ta, carinua alcarri eracutsita, dant-
gara eruan daveelaco, nesquiac mu-
tilari esquer ona carinoz emonda,
bacarrian cer esango daveen, ta cer
iragoco daveen, pensau begui, alaco
ordubeen barri obeto daquijanac. Ave-
marijeetan gueratu dedilla tambolina.
Ez, gueratu oidalaco piesta egunie
erdijeetan, ta guichijagotan bere.
Baina izan dedilla alan. Bada despei-
daco gentiaren urteneria da guztien
aazcarrija. Guztiaç dacuseela, ta dant-
zubeela, eguiten dira urtenera zi-
quin atan nesqueen, ta mutileen ar-
tian, noc nori asco ez daquijala
naastian, toçamentu loijac, oratute
loijac, mosuca loijac, escuca loijac,
pecaturaco convit erabaguijac, ta beste
luxurijaren asmuac topau dituban, ta
esan leguizan verdequerija altubac,

clarubac, ta zatarrac. Nesca batac
 egiten dau garraasi bat. Bestiac sili-
 jo bat. Bestia asarratuta, asten da
 lotsagalduco diadarca. Bestiac bardin
 eguiten deutsa bidao bat, oratu deut-
 san mutilari, edo guizonari, orducua
 ija guztizcua dalaco. Alan duaz pla-
 zati echeruz aldi baten naastian, ta
 morduan ajuica, diadarca, barreca,
 ta oratuca, luxurijaren pestia, ta atsa
 darijuela, bacocho bere laguna gana,
 ta bidera batu artian. Echia urrinago
 dauqueenac, urteten davee, oidanez,
 leenago plazati. Urtaago dauqueenac,
 berandubago. Baina gavao ordubac
 emonda bere, ez dira palta, ez pla-
 zaan, ta ez bideetan nescaac, eta
 mutilac. Piestati echeruz nequez dua
 inor bacarric, ordirenbat ez bada. Guel-
 jenian nesca bat, ta mutil bat al-

carri escuti, edo samati oratuta. Edo nescabat mutil biren erdijan ; edo mutil bat nesca biren erdijan, alcarri dautseela , esandan moduban. Ta guei-jeenac , aurrecuac ondorenguai , ta ondoric duazanac, aurrerago duazanai, burla desonestubac alcarri eguiten. Nesca bat , mutil bat albuan ezdavela , piestati echera nequez. Areec bidian illunian (bada avemarijectan tambolina ixildu zanian, plazati urten even leenenaz). edo legua bat bidian , edo legua erdijan, edo gueijaguan echeetara artian cer eguin aldaguijeen , amar urteco umiac bere baquijee.

Cale barruco dantzarijac ez dira segurubago gueratuten eureen tambolin egunetan , bestiac baino. Ta onen errazola emongo da zortzigar-

ren errespuestaan, emen esaten danaz gainera, itsuba, ta gorra ez darguanac, aituteco, ta ezaututeco tercijuan.

Ara emen, celan eguiten dirian placeetaco piestaac. Ecer bere ezdot esan, gueituta. Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztia papperian ez imintiarren. Gueure errijeetaco piesta bat, edo bi asi, ta amaitu contuz icusi ditubanac, ta euscal errijeetaco gentiaren, ta echeen barri daquijanac, ez deuts ucatuco, esan dodan verba bat. Piestetan sarri gogoz ibili dana, bada, esango dau; dauqueen baino, echura obia emon deutseedala. Ta ez dira emen contruban sartuten, dantzia emon jacuelaco, edo emon ez jacuelaco, Copradijetaco, ta albo-errijeetaco gen-

tiac atera oidituban ocasinolac, gor-
rotuac, vengantzaac, burrucac, ma-
quilacaac, ta guizon illtiac bere bai,
izan arren casic piesta guztietan gui-
chiago, edo gueijago. Ichi dagui-
jeegun bada tertciyo onetan Plazaco
Dantzai. Ta icusi daigun, Espiritu
Santubac, ta Eleisiaren Gurasuac
cer dinuen naasteco dantzaac gaiti.

§. III.

*Escritura Sagradubac, eta Eleisiaren
Gurasuac naasteco dantzaac gaiti
dinuena.*

Lecu ascotan esaten deuscu Es-
critura Sagradubac, ce condicinoeta-
cuac dirian naasteco dantzaac. Ez da
nire gogua, guztia ez, ece guichiago

76

bere emen imintia. Testamentu zaar-
reco , ta barrico liburu guztietan
dagoz sentencija, edo esan era bat-
zuc, pedia daucan cristinaubari, icara
eraguin leguijucenac. Iracurri bediz
Job , Isaias, Daniel, Salomon, Evan-
gelijua , ta San Paulo , ta eurac
quenduco deutsee, salvau gura dave-
nari , ocasinoe galdu areetan, ta arei
darraicuezan pecatu impameetan sar-
tuteco gogua. Esan bat , edo bi go-
goratuco ditut , gueure placeetaco
dantceen sarija ondo autor daveenac.
Dino Espiritu Santubac lecu baten (1):
*Ganadu aldriac leguez , urteten davec
pecatarijeen umiac soinubagaz ; dant-
zan , ta saltoca daviltz soinubaren*

(1) Job. 21.

77

otsian; eureen egunac iragoten diru-
 bee aleguere, ta pozic, ta istante
 baten jausten dira impernura. Et in
 puncto ad inferna descendunt. Beste
 lecubaten dino (1): Emacume dant-
 zaarijaganic apartau zaite, bere
 artiagaz, ta encantubagan gal-
 du ex zaguizan. Ne forte pereas in ef-
 ficacia illius. Beste batzuc iracurten
 davee: Cantaarijaganic. San Cipria-
 noren erichijan bijac, emacume dant-
 zarija, ta cantaarija bardinac dira, gui-
 zonac galduteco. Beste lecubaten dino
 Espiritu Santubac (2): Siongo alaba
 ibili ziriala, eureen burubac jasota,
 samaac armatuta, apainduta veguiracune
 maiteetan escubaquin chaloca, ta oinaquin

(1) Escl. 9. (2) Isaías. 3.

*dantzan. Alan ibili dirialaco, Jaungoicua-
cuac quenduco deutseezala siongo ala-
bai eureen apaindurijaac, mutilduco
deutseezala eureen burubac; ta emongo
deutseela buruco apaindurijaren lecub-
an calva gorrija, loreen lecuban atsa,
ta cinteen lecuban cordelac, ta cilici-
jua. Escritura Sagraduco lecu onee-
tan (beste jazo, ta esan ascori ichi-
ta) gucure piesteetaco dantza madari-
catubac Jaungoicuaren gorrotua, ta
zamaija eureen gainian dauqueena,
edoceinec dacuts.*

Naasteco dantza impameen gai-
nian *Enbeto*-en Gurasuac, ta Santu-
bac dacarreezan errazoc asarriac, esa-
tez amaitu ezin leguiz. San Juan
Crisostomoc esaten dau (1): *Dantza*

(1) *Hom. 49. in 14. Math.*

nataija dagan lecuban, dago diabruba.
Ez eutsuzan Jaungoicua oinac emon,
dantzan eguiteco; ez bada modestijaz
pausu eguiteco::: Pieta orreetan dia-
brubac dantzan eguiten dau; ta de-
moninuen aguacillac engaineetan ditubee
guizonac.... Oraingo dantzeetan ezjaco
samia ebaten San Juan Bautistari;
baina illten dira cristinaubeen arimac.
San Efrenec dino (1): Ez dedilla
inor engainau. Inoc bere ezin tervidu
leguizala ugazaba bi. Inoc bere ezin
leguijala, Jaungoicua tervidu, ta dia-
brubagaz dantzaan eguin... tzia da-
guan lecuban, dagozala oquerreriya guz-
tia. An daguala emacumen galdu le-
cuba; Aingueruben tristecia, ta diabru-

(1) De Ludis fugiend.

80

been poza, ta piestia. Goxian Eleisan,
 ta arrats aldian dantzan diardubana,
 goxian Jaungoicuagaz, ta arrats aldian
 diabrubagaz daguala. San Ambrosioc,
 San Ciprianoc, ta Tertulianoc gueijago
 escribidu evenen piesta galdubeen, ta
 naasteco dantceen contra. Gueure er-
 rijetaco piesteetan, ta dantzeetan icus-
 ten da, areec condenēetan ditubeen
 pecatubac, ta oquerrerijac. San Am-
 brosioc dino (1): *juicijua, ta moder-
 tija daucanac, ezdavela dantzan egui-
 ten..... Adulterijuaren alabia dala, dant-
 zan eguiten davena.....* San Ciprianoc
 dino (2): *¿Ce zoraquerijac artu ete dita
 cristinaubac..... demoninuac armautaco*

(1) *Lib. 3. de Virg.* (2) *Lib. de Spectac.*

81

dantza loijac, onac diriala esateco
 Santo Tomasec dino, San Agustine-
 gaz (1): Domequeetan, ta jai egunetan
 dantzan eguitia, pecatu andijagua da-
 la, soluan nabasen, edo echian goru-
 betan eguitia baino. Obeto gordeco
 eveela, (edo pecatu guichiagogaz) Ju-
 degubac zapatuba nabasen, edo go-
 rubetan eguinagaz, dantzan eguina-
 gaz baino.

San Basilioc dino (2) naasteco
 dantceetan daviltzan emacumiac gaiti:
 3 Ceintzuc gaiti negar eguingo eta

F

(1) 2. 3. q. 122. a. 4. (2) Orat. 2.
 de temperant. et lib. de Elia, et
 Jejun. c. 18.

*dot ? Ala ezcondu bagacuae gaiti, ala
 ezcondubac gaiti ? Ezcondu bagacuae
 virginidadia galduta, viurtuten dira
 echeetara. Ta ezcondubac ezdeutsee
 castidadia gordeetan Senarra. Bada
 dantzan daviltzan emacumetati, bana-
 caren batzuc gueratuten badira gor-
 putz osuagaz; (pornicau bagaric) a-
 reec bere arimaco castidadia galduta,
 loituten dira. Santu onen erichijan;
 2 nos contaucos etc cituban Eleisa
 Ama Santiac, edo nos iminico ete-
 lituque virgineen artian, Erri onee-
 taco piesteetan, ta naasteco dancce-
 tan ibili dirian emacume libriac, gue-
 ro santa andi eguingo balira bere?
 Bada, dinuanez, inoc ezautu ezin
 leguizan banacaac, baino ez da gue-
 ratuten gorputz osuagaz. Ta areec
 bere arimaco castidadia galduten da-*

vee dantceetan. San Antoninoc di-
no (1): Dantzarijac diabrubari bidia
presteetan deutseela; diabrubagaz im-
pernuban aguertuco diriala.... Soloco
coco saltocarijac laboria galduten da-
ven leguez, emacume dantzarijac ari-
maac galduten dirubeela..... Dantziac
impernuco pozuti urten davela.... Im-
pernuco labati quee atsitubac urte-
ten daven leguez, naasteco dantzee-
tati luxurijaren subac urteten dave-
la..... Guizon, ta emacumeen naasteco
dantzia demoninuac darabilela, ari-
mac galduteco.... San Carlos Millan-
go Obispo andijac, ta guiza aldi o-
neetaco Eleisiaren Arguijac liburu
oso bat escribidu evan dantza naaste-

F2

(1) *P. 2. tit. 6. c. 6.*

84

cuen contra emeretci capitulugaz, ta
 amairu *conclurinoz*, edo amaigaz. An
 eracusten dan Santubac Eleisaco Gu-
 rasuen, jaquituneen, ta errazoiaren
 goitute osuagaz, esan dirian naasteco
 dantzai jarraitutia pecatu mortala da-
 na. Ta dino (1): *Naasteco dantzaan*
oidan naraitasunati, ta ocatinoiari ve-
guiratu ezquero, ez dauca, inoc cetan
pensau, estubac gariala, naasteco dant-
ziari jarraitutia pecatu mortala dala,
eracusten dogunian.

Au da Eleisiaren Gurasuen verbe-
 tia naasteco dantza galdubeen con-
 tra. Ez cirian Guraso santu, ta Ce-
 raco dotriniaren Eracusla Jaquitun
 areec, gueroco Escolau batzuc le-

(2) *De Choreis. c. 16.*

guez , dantzaac *per se* , ta *per acci-*
dens, secundum se, ta *per abusum*, in
genere suo , ta *per malitiam* eraba-
 guiten ibili. Ezbada beguiratu eut-
 seen guizon , ta emacumeen arteco
 naasteco dantziari , guiza aldi guz-
 tietan jazo dan moduban , jazoten
 dan moduban, ta jazoco dan modu-
 ban , (eguiten bada) Adanen seme
 alabaac vitzi dirian artian. Au ondo
 ezaututa , ondo sinistuta , Jaungoi-
 cuaren Mandatari areec eureen libu-
 rubeetan esanda ichi evenen cristi-
 nau guztienzat naasteco dantzaac
 gaiti , ordiquerija , gorrotua, murmu-
 racinoia, sobervija, Batio-ucaturia, sa-
 crilegijua , luxuriya , pornicacinoia, ta
 beste pecatu ezainac gaiti esan even
 bairen deungaro. Guizon, ta emacu-

men naasteco dantziari esaten deute-
see Eleisaco Santubac verbaan ver-
baan: Impernucó pozuba, Babiloni-
jaco labia, Errijetaco pestia, pecatu
guztien erne lecuba, luxurijaren es-
colia, castidadiaren galdugarrija, dia-
brubaren chirrintolia, satanasaren sa-
ria, demoninuen jocua, piestia, sor-
tia, Jesucristoren desondragarrija, cris-
tinaubeen lotsagarrija, Bautizmoco
promeseen ucagarrija, Ainguerubeen
tristecia, Virgineen ondamendija, a-
dulterijoguina, lapurguina, gorroto-
guina, zeloguina.....

Au esaten davee Santubac naas-
teco dantzaac gaiti. ¿Cer esango e-
veen, gueure placeetaco dantza de-
sondraubac asi, ta amaitu, echian
urteten daneti, ta sartu artian,

icusi balitubee? ¿ Nos absolviduco
 even guraso bat , edo ume bat, be-
 rarijaz olguetia gaiti dantza madari-
 catu orreetan davilena , ta ibilteco
 ustia daucana ? Eurai itandu. Eleisa
 Ama Santiaren Batzaarretaco neur-
 garrijac , ta Cristandadeco Aguinta-
 tari Jaunen ordenaac bere bardin
 condeneetan ditubee naasteco dant-
 zaac. Baina. ¿ Ce Cristandadeco? Er-
 romaco gentileenac iracurten dira
 dantza galdubeen contra , Errijeeta-
 co , ta pamelijetaco baquia , ta ma-
 trimoniuaac galduten ditubeelaco. Esan-
 danagaz aaztu bagaric , icusi daigun,
 teologija Sagradubaren Eracuslaac, ta
 errazoiac eurac gaiti dinuana.

§. IV.

*Theologubac, ta Errazoiac naasteco
dantzaac gaiti dinuana.*

Ezda nire gogua, sail au luza-
tutia. Ezbada aibat laburren, ta
arguiruen imintia. Liburu andijac es-
cribidu leguiz, asco cansau bagaric,
leenagoco guiza aldeijetacuac esan-
daveena, batuten asi ezquero. Elci-
siaren Gurasuac gorrotoz beguiratu
badeutsee naasteco dantzai, areen on-
dorengo Teologu, edo *Moralistarie*
juicijozcuenac ez deutsee obeto begui-
ratuten. Dinot: *Juicijozcuenac*. Bada
beste gauzaric escribidu daveenac,
inoc iracurten ez ditu, euren inocen-

cijari, ta penaeeta modubari barre-
eguiteco baino. Bat, edo biren esanac
nic iminico ditut, ta beste batzue
icentau.

Lelzengo lecuba errazoiagaz euqui
biardau Benedicto XIV. ez estutzat,
ez nasaizat iracurla batec bere ez-
daucanac. Onec dino, beste Santu, ta
Eracusla asco icentautu (1): Guizon,
ta emacumeen arteco dantza naastaubac,
eurenez pecatu izan ez arren, eguiteen
dirian moduban, pecatu diriala. Cura
Jaunai, ta compesore jaunai jagocuela,
guizon, ta emacume guztiai ondo aituten
emotia: Ce ocatinoe andija, ta peli-
gruba daguan naasteco dantzetan: ta,
pecatu eguiteco peligru andira, du-

(1) Instruct 76.

3131 (1)

zala, ara duazanac. Belarmino Cardenal, Jesuita Veneragarriac dino (1): Adulterijua, ta pornicacinoia pecata badira, ezdaquijala berac, guizon, ta emacume naaste dantzari ibiltia, celan pecatu izango ezdan; dantziac atara convideetan davela ta..... Zue, dino Cardenal Jaunac, gaztetasunaren subari ezarten deutzazu ardauaren suba, juan, ta etorri, egon, ta ibili, ta cantau eguiten dozu nescaquin: eta ez dot nie zu gaiti gauza chaarric pensauco?

Aita Paulo Seineri, Italiaco Misinoe jaquitunac, ta Zelotsuac, leenagoco Eracusleen esan era guztia bardinduta, ta alcartuta, eracusten

(1) *Ibid.*